

Liburuak

KRITIKA

Musuak bularretan

Helduen literatura

Igor Estankona

MIQUEL MARTÍ I POL (Roda de Ter, Osona, 1929 - Vic, 2003), tornulariaren eta kotoi fabrikako langilearen semea, gerra eta zikinkeria ezagutu zituen, desagerrarazi nahi zuten Katalunia defendatu zuena lumarekin eta hizkuntzarekin, gaixotasunak makaldua, aita, alarguna, senarra bigarrenez... ederra da, nostalgiaren puruan, gizon honen *Marta maitea* hartzea, Joxemari Sestorainek itzulia. Lluís Llach eta Maria del Mar Boneten Mediterraneoko pinudietako haizea ekarri dit, eta haize horrek, bitxia da, Joseba Sarrionandiaren itzulpenen aparra eta Andolin Eguzkitzaren gozamen malkoak. Horrela korapilatuko zaizu zuri ere bizitza bihotzaren eta sabelaren arteko puntu horretan. *Marta maitea* erabat orekatua da, sakona eta sinplea. Horregatik da aparta.


Vint-i-set poemes en tres temps (Hogeita zazpi poema biru alditan, 1972) idatzi zuenerako, Martí i Polen gorputzean esklerosi anizkoi-tzak egina zuen bere zuloa. Ezinbestean, garai hartako bere poesiak bakardade, oinaze eta

heriotzaren gertutasunerantz egiten du: poeta bere baitan biltzen da. Baina, era berean, zorroztu egiten ditu ikusmena eta ukimena, muga fisikoak zehazki non dituen horien bitartez ikasten hasten da-eta. Horrela, *Cinc esgrafiats a la mateixa paret (Bost esgrafiatu borma bereberean, 1975)* lanean nabari denez, katalanak ez errenditzea erabakitzen du. Suspertu eta *Quadern de vacances (Opor-liburua, 1976)* idazten du. Apurka-apurka, fenixa bezala, biztu egiten da Martí i Pol, poesia bitalista eta gero eta distiratsuagoa eginez. *Estimada Marta (Marta maitea, 1978)* baikortasun, sentsibilitate eta izadiarekiko maitasunaren gailurretako bat da, hausnarketa sozialaren, erotismoaren eta etorkizunarekiko konfiantzaren bideetatik doana: “Ez nintzateke loriatuko inork pentsatuko balu itxurakeriaz luzatu naizela eskuburdinaz eta gergilez lotu nauten mugak xeheki azaltzen. (...) Garbi geldi bedi ez nauela heroismoak erakartzen eta ez nabilela eredugarri izan nahian”.

Hitzaren eta sentimenduen uztartze perfektua da Martí i Polen poesia. Lumaren bitartez barne-munduak deskribatzen maisua da. Ez dauka hitz bat alferrik, ez dago estridentziarik, dena da fintasuna. Zergatik maite dugu hainbeste, gainera? *Marta maitea* honetan ageri den lege hurbila delako beti, eta ez diolako inoiz bere buruari penarik hartzen. Atsekabeak atsekabe beti dauka berba gozo zehatz bat Martí i Polek.



Marta maitea.
Miquel Martí i Pol.
Itzulpena: Joxemari Sestorain
Denonartean.
118 orrialde.
9 euro.



txalaparta



www.txalaparta.com